

ERAKUSKETA
2024ko martxoak 13 - ekainak 29

sala **ondare** aretoa



+34 94 406 77 37
ondare.aretoa@bizkaia.eus



Astelehenetik larunbatera: 10:00-14:00 eta 17:00-20:30
Igande eta jaiegunetan, itxita

De lunes a sábado: 10:00-14:00 y 17:00-20:30 h
Domingos y festivos, cerrado

Sarrera librea • Entrada libre



sala **ondare** aretoa • María Díaz de Haro, 11 • 48013 Bilbao

CLEMENTE & JESÚS ARRAIZ

Ondare Aretoak bi margolari bereziren omenez eta errekonozimenduz erakusketa hau aurkezten du: **Clemente Arraiz Inchaurregui** (1873-1952) eta **Jesús Arraiz Ibarra** (1898-1980). Gasteizen jaiotako aita-emeak ez dira oso ezagunak, eta haien lanak lehen aldiz batera erakutsiko dira Bilbon.

Alicia Fernández eta Ander Lopezek¹ komisariatuta, margolan hautatuak bilduma partikularretakoak eta zenbait instituziorenak dira, besteak beste, Arabako Arte Ederren Museorenak eta Gasteizko Udalarenak.

Erakusketako ibilbideak elkarrizketa arina proposatzen du bi artisten lanen artean, eta aukera ematen dio ikusleari haien gaiak eta ezaugarriak ezagutzeko, elkarren arteko antzekotasunak eta eraginak antzemateko eta sormen-arloko desadostasunak ikusteko.

Familia-erretratuekin hasten da erakusketa. Beren ibilbideetako etapa desberdinetan sortu zituzten, bizi eta sortzen zuten espazio intimoetan, esaterako, Arraiz Ibarra familia bizi zen Olagibel kaleko etxeko egongelan.

Horren ondoren, itsas, natura- eta hiri-inguruneak dituzten **paisaiak** bildu dira. Besteak beste, agerian uzten dute Clementek Jesús Arraizengan izandako eragina eta biek paisaiarekiko eta argiarekiko zuten lilura.

¹ Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren onuraduna.

Clemente Arraizek izaera bidaiaria zuen, eta mundua esploratzen jarraitu zuen, nazioartean izandako esperientziaren eta dekorazioko negozioa ireki ondoren. Horren adibide dira Kantauri isurialdean Biarritzetik Ferrolera egin zituen bidaiak.

Hainbat urtez Fernando de Amáricaren adiskide handia izan zen, eta, harekin batera, Clementek Arabako paisaia margotu zuen hasieran, *Río Zadorra a su paso por Trespuentes* (1895) lanean islatzen den bezala. Geroago, Gerra Zibilaren ondoren, bere seme Feliperi Galizian egin zizkion bisitetan, Vigoko itsasadarraren ingurune naturalak inspiratuta, *Castro del monte Santa Tegra* (c. 1945) eta antzeko lanak egin zituen Amáricarekin batera.

Atal hau amaitzeko, Clemente eta Jesús-en hiri-paisaiak daude, hiriko eguneroko esentzia eta atmosfera bereganatzen dituztenak. Soziabilitate eta aisialdirako lekuak irudikatzen dituzte, eta artista bakoitzak bere hiri-existentziarekin lotzen zituen emozioak eta esperientziak transmititzen dituzte.

Loreak eta natura hilak genero artistikoak gogotsu landu zituen Clemente Arraizek, eta Jesús Arraizi ere interesatu zitzaizkion. Genero horiek, artearen historian oso ezagunak, baliagarri izan zitzaizkien objektu eta elementu naturalen edertasun estetikoa esploratzeko.

Loreak, loreontziak eta natura hilak oso garrantzitsuak dira Clemente Arraizen obran, batez ere bere azken aldiko jardueran. Gai horiek tokiko testuinguru artistikoari eta garaiko gustuari lotuta daude; are gehiago, Gerra Zibilaren ondoren, erretratuekin batera, Euskal Herrian ekoizitako pinturaren genero nagusiak izan zirenean.

Konposizioetan, Clementek Euskal Herriko fruta autoktonoak (esaterako, sagarrak eta irasagarrak) uztartu zituen sukaldeko tresnekin eta etxeko beste tresna batzuekin. Bere estudioan asmatu zituen, eta jarrera zaindua, argiaren eta itzalen sotiltasunen azterketa, eta efektu bisual liluragarriak dituzten irudien errealismoa nabarmentzen dira haietan.

Lore-gaiak funtsezkoak dira Clemente Arraizen ekoizpenean, eta genero bereizgarria dira ia haren adierazpen artistikoan. Natura biziaren errepresentazio horiek eguneroko erritual baten ondorioa dira ia. Goizero, bilobak gogoratzen duenez, konfiantzazko lore-saltzailea bisitatzen zuen Alaba Jeneralaren kalean, eta hainbat lore-multzo erosten zituen, hala nola arrosa, bioleta, krabelin, peonia, gladiolo edo lirioen sorta koloretsuak, eta gero betekotu egiten zituen mihise eta oholetan margotuta.

Giza irudia da Jesús Arraizen lanaren elementu nagusia eta protagonista, eta, bere aitaren obran ez bezala, oso paper nabarmena betetzen du bere ekoizpenean. Bere enpresa itxi eta erretiratu ondoren, Jesús Arraizek jarduera artistiko handiko fase bati ekin zion, eta, 1980an hil zen arte, mihise gaineko pinturan aritu zen erabat Bilboko Manuel Allende kaleko bere etxean. Garai hartan, formatu txikiko koadro ugari sortu zituen, eta poza islatzen duten era askotako gaiak eta haurren eta taldeen eszenak landu zituen.

Clementek eta Jesús Arraizek **barnealdean dekorazioko** negozioak eduki zituzten Gasteizen eta Bilbon, garai hartako elite sozialaren erreferenteak izan ziren eta beren garaiko enpresarik garrantzitsuenentzat lan egin zuten. Gaur egun, egin zituzten lan gehienak desagertuta daude, baina, zalantzarik gabe, funtsezko alderdia da hori bi margolarien ekoizpen artistiko osoa ezagutzeko.

Hemen, Jesús Arraizek leku ezezagunetan egin zituen zirriborro batzuk aurkezten dira, kontserbatu den sorkuntza-lanik garrantzitsuenarekin batera: Ajuria familiaren Gasteizko jauregiko horma-pinturak, gaur egungo Ajuria Enekoak.